

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2025eko apirilak 25 - 1352 zenbakia

## LIBURU-DENDAK ASPALDIKO KONTUA?

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA AIZENBERGARRIETA, 400P.E.

**Goi Mailako**

**Heziketa Zikloak**

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

**Espezializazio ikastaroa**

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



**TALENTU  
PROFESIONALA**  
eskolatik - industriara

## ATE IREKIAK



**Malatzak 10**

11:00etan

664298683 // 664298704

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

#### MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala  
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70  
abogada@martavalera.es

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

#### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

# Jarraitu gaitzazu!

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



@etakitto



Errenta Aitorpena egiteko sasoi betean gaude eta Eibarren Akebai plataformatik Errenta Euskaraz ekimena jarri dute martxan, aitorpena euskaraz egitea sustatuz.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOAK

943 20 67 76

#### AZALA

Plazaola (1959)

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



(\*...eta kitto!k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

# Eskutitzak



## Euren krisia ordainarazi nahi digute

Europa zentro inperialista gisa duen posizioa galtzen ari da eta honekin, agerian geratzen ari da bertako industriaren lehiakortasun falta. Hori dela eta, lantegi asko itxi eta beste hainbat irabazi handiagoak lor ditzaketen eskualdeetara mugitu nahi dituzte, besteak beste, Ezkirozko BSH, Altsasuko Sunsundegi, Zumaiaiko Balenciaga, Gasteizko Recubrimientos Orgánicos Saro, Laudioko Guardian Glass, Oñatiko Stadler eta Tuterako Nano.

Deslokalizazioaren eta enpresa itxieren mehatxuak, halaber, lan baldintzak okertu eta soldata murrizketak inposatzeko xantxia gisa erabiltzen dituzte enpresariak. Gainera, kaleratzearen alternatiba gisa lanpostuen malgutasuna normalizatzen ari dira, laneko legedia enpresariaren mesedetara moldatuz eta beraien irabaziaz langileen soldaten kontura handituz.

Egiturazko industria krisi honen aurrean oligarkia europarra berregituratze ekonomiko handi bat sustatzen ari da bere hegemonia ekonomiko eta militarra mantendu nahian. Horren ordainetan, milaka langileen heriotza, gerrateak, goseteak eta bizi baldintzen okertzea ari gara pairatzen. Sozialdemokrazia, eskuina eta eskuin muturreko alderdiak dira berregituratze prozesu hau babesten ari direnak.

Berregituratze ekonomikoaren adibide garbia dira besteak beste, azken 10 urteetan Europar herrialdeen gastu militarra %62 igo izana edota Bruselak aurrekontu komunaren %33a alor militarrean bideratu izana. Txanponaren beste aldean ordea, azken 25 urteetan eros ahalmenak %42,5 behera egin izana dago eta pentsioetara eta osasungintzara bideratu beharko luketen dirua gastu militarrean bideratzearen nahia.

Honen aurrean, gure eginbeharra klase batasunez eta elkartasunez jardutea da. Langile klase osoaren bizi eta lan baldintzak jopuntuan baitaude.

Europako estatuen militarizazioaren aurrean kaleak hartu. Gerra inperialistari ez! Maiatzaren lehen denek Bilbora!

**Eneko Carrion (Deba Bailarako Kontseilu Sozialista)**

# Hortik esanak



Gu denok ziborgak gara, gizatiarrak ez diren osagaiak dituzten pertsonak, egunero aldean daramagun mugikorretik hasita. Gero eta gehiago bizi dira gure partez. Haiek erabakitzen dute zein bide hartuko dugun, ze jatetxetan bazkalduko dugun balorazioen arabera, edo horrelako kontuak, hausmarketarako bide ematen dutenak. Momentuz kanpoan daramagu mugikorra, baina txip bat sartuko digute segur aski eskuan eta hori izango da mugikorra. Hala ere, ez da alde handirik izango gaur egungoarekin.

**MIKEL AYLLON, Pizifaktoria Ideien Laborategia**

Gure inguruan tradizio linguistiko, kultural eta literario diferenteak ditugu, eta bitxia da zein leku ezberdina duen literaturak bateko eta besteko kulturaren, Espainiakoan, Frantziakoan, Ingalaterrakoan edo Euskal Herrikoan, adibidez. Elkarren ondoan daude kultura horiek, baina diferente funtzionatzen dute; funtzioa bakarrik ez, prestigioa ere diferentea da. Esaterako, Ipar eta Hego Euskal Herrian harrigarria da zer formazio literario diferente dagoen derrigorrezko hezkuntzan. Bitxia da. Estatu-nazioaren historia, geografia eta kultura ikasteko ardatza literatura da Ipar Euskal herrian, baina ez Hegoan.

**AMAIA ALVAREZ, idazlea**

## Datorren astean ez da alerik izango

Maiatzaren 1eko zubia dela-eta, maiatzaren 2an ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 9an, hurrengo barixakuan, jasoko duzue betikoari jarraituz. Bitartean, dena dela, gure web orrian jarraituko dugu informazioa biltzen eta transmititzen.

**Erredakzioa**

## Hildakoak

- **Angel Luis Cordeu Sola.** 79 urte. 2025-04-10.
- **Monica Rueda Romo.** 54 urte. 2025-04-12.
- **Carmen Amutxastegi Agirre.** 93 urte. 2025-04-13.
- **Rosa Maria Muruamendiarez Yarza.** 84 urte. 2025-04-14.
- **Rafael Gil Arenas.** 92 urte. 2025-04-14.
- **Maitere Otxandiano Guridi.** 86 urte. 2025-04-15.
- **Carmen Arano Aranberri.** 75 urte. 2025-04-17.

- **Jesus Malvar Grande.** 70 urte. 2025-04-17.
- **Victoria Kortabarria Eizagirre.** 95 urte. 2025-04-18.
- **Amalia Amilibia Nazabal.** 58 urte. 2025-04-19.
- **Miren Koikile Albizu Etxabe.** 93 urte. 2025-04-20.
- **Mari Carmen Gomez Pereira.** 93 urte. 2025-04-21.
- **Agustin Camara Leon.** 89 urte. 2025-04-21.
- **Lourdes Aranberri Zuazo.** 75 urte. 2025-04-21.

## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 25</b> EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)	<b>ZAPATUA 3</b> EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)
<b>ZAPATUA 26</b> EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)	<b>DOMEKA 4</b> EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 27</b> EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)	<b>ASTELEHENA 5</b> EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)
<b>ASTELEHENA 28</b> EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)	<b>MARTITZENA 6</b> EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 29</b> EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)	<b>EGUAZTENA 7</b> EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 30</b> EGUNEZ   Azkue (T. Etxebarria, 4)	<b>EGUENA 8</b> EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)
<b>EGUENA 1</b> EGUNEZ   Castaño (J. Etxebarria, 7)	<b>BARIXAKUA 9</b> EGUNEZ   Elortza (J. Gisasola, 18)
<b>BARIXAKUA 2</b> EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 31)	<b>GAUEZ BETI</b> , 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Errepublikaldarrikatu zen eguna gogoratzen duen plaka azpian lora-sortak laga eta talde-argazkia eginda agurtu zuten ekitaldi instituzionala. SILBIA HERNANDEZ

## Untzaga plaza Memoria Demokratikoaren Leku izendatzeko lehen pausoa

Izendapena Jon Iraola alkateak 2023ko maiatzaren 12an aurkeztutako eskaeraren emaitza da. Fernando Martinez estatu-idazkariaren berbetan, “Memoria Demokratikoaren Legearen esparruan, Eibarrek bi gertakariengatik merezi du Memoriaren Leku izatea: 1931ko apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zuen Espainiako lehen hiria izateagatik, eta 1937ko apirilean Espainiako Gerran Errepublikaren eta haren nazioarteko aliatuen aurka maxinatutako armadako hegazkinak egin zituzten bonbardaketa tragikoengatik”. Alkateak adierazi zuenez, “gaurko aitortza pauso garrantzitsu bat da gure memoria kolektiborako. Eta bereziki poztu

egiten gaitu Estatuko historia demokratikoan Eibarrek izan zuen garrantzia baloratu izana. Merezitako aitortza bat da, bai Eibar-ko herriarentzat, baita denboran zehar balio demokratikoak defendatu dituzten pertsonentzat ere”. Justizia eta Giza Eskubideen sailburuak, berriz, euskal sozialismoak askatasunarekin, herritartasunarekin eta bizikidetzarekin izan duen konpromiso historikoa azpimarratu zituen, eta harrotasunez gogoratu zituen 1931n errepublika libre eta demokratikoa aldarrikatu zuten zinegotziak.

Aitortza jaso ondoren, Untzaga plaza Memoria Demokratikoaren Lekuen Estatuko Inbentarioan sartuko da. Horrek esan nahi du

Apirilaren 14an, Espainiako II. Errepublikaren aldarriaren 94. urteurrenean hasi zen ofizialki Untzaga plaza Memoria Demokratikoaren Leku izendatzeko prozesua. Horren harira Eibarko Udalak antolatutako ekitaldian Fernando Martinez Memoria Demokratikoaren estatu-idazkaria, Marisol Garmendia gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaria, eta Maria Jesus San Jose Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen sailburua egon ziren, udal-ordezkariekin eta bertaratu ziren herritarrekin batera.

Udala behartuta egongo dela haren kontserbazioa, seinaleztapena eta interpretazio historikoa bermatzera, Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

### Eibarko sozialisten ospakizuna

Goiz horretan bertan, Eibarko PSE-EEko kideek urteroko moduan gogoratu eta ospatu zuten Errepublikaren aldarria, Untzaga Herriaren Etxeko balkoian Errepublikaren bandera igota eta eguerdian txapliguekin, Txaltxa Zelaian.

BIDEOA ikusgai



ARGAZKIAK k ikusgai





## Maiatzaren 3an hasiko dira Santa Kurutz jaiak ospatzen

Aurten zapatuan izango da Santa Kurutz eguna, maiatzaren 3an, eta bi egunetarako egitarau potoloa prestatu dute auzoko jai batzordekoek, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte jaietan parte hartzera. Santa Kurutz egunean goizetik hasiko dira ospakizunak, 10:30ean ermitako kanpaiak iraulita. Jarraian meza ospatuko dute, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde.

Ondoren, hamaiketakoan egongo da gerturatzen diren guztientzat, Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilariak girotua. Eguerdirako erraldoiak, buruhandiak eta haurrentzako jolasak antolatu dituzte, eta 13:00ean hasiko dira herri-kirolak, Karnele Gisasola, Uxue Ansozregi, Julen Kañamare eta Ibai Soroaren eskutik. Bazkaria, berriz, Ixua jatetxean izango da (14:30ean)

eta, bazkalostea girotzeko, erromeria egongo da. Eguna Arrateko frontoian agurtuko dute, 19:30ean hasiko den esku-pilota lehiaketarekin. Hurrengo egunean jarraituko du jaiak, 09:45ean Urkizuko iturritik abiatuko den Santa Kurutzera igoerarekin. Bazkaltzeko ordura arte hainbat ekitaldi egongo dira (35. orriko agendan begiratu), eta jaietako azken eguna maiatzaren 10a izango da: 19:00etan musikarekin alaitutako poteoa hasiko da (Untzagan), eta ondoren bertsoafaria egingo da Depor tabernan, Julio Soto eta Joanes Illarregirekin.

**DEPOR TABERNA**  
T. Etxeharria, 16 943 94 49 12  
deportaberna@deporibar.com

- EGUNEKO MENUA astehenerdik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- ASTEBURUETAN razioak, o tartekoak, plater konbinaituak...
- GOSARIAK egunero
- TALDEENTZAKO menuak egiten dira

## Ileapaintzailea BEHAR DA

Jean Louis David Bergara

### ESKATZEN DUGU:

- Aldez aurretiko esperientzia baloratuko da.
- Jarrera positiboa eta bezeroenganako tratua ona.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.

### ESKAIKTZEN DUGU:

- Giro atsegina eta profesionala.
- Lan-baldintza onak.

tfnoa. 673 40 27 25 ituarri@gmail.com  
Ibargara Hiribidea, 48 - 20570 BERGARA



2025eko aurrekontuak 427.000 euro baino gehiago bideratzen ditu garapen-, sentsibilizazio- eta gazteen elkartasun-proiektuak laguntzera. ARTXIBOKO IRUDIA

## Udalak nazioarteko lankidetzarako dirulaguntza-lerro berriak sortu ditu

Udalak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren bitartez, nazioarteko lankidetzarako dirulaguntza sorta berria jarri du abian, “elkartasun globalarekin eta giza garapen jasangarriarekin duen konpromisoa sendotze aldera”. Laguntza berriak 2025eko udal-aurrekontuan sartuta daude, eta guztira 427.077 euroko zenbatekoa osatzen duten hiru ildo nagusi dituzte: “Lerro garrantzitsuena garapenerako lankidetzarako proiektuetara bideratuta dago, 399.077,04 euroko zuzkidurarekin (aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 30.000 euro gehiago). Partida hau udal-aurrekontuaren %1 da eta, horrela, Udalak arlo honetan hartutako konpromisoa betetzen du”, adierazi dute. Laguntza horiek irabazi-asmorik gabeko gobernu kanpoko erakundeek zuzenduta daude, eta helburua komunitate hartzaileen hobekuntza sozioekonomikoa bultzatzen duten eta Eibarko herritarren artean gizarte-

eraldaketarako hezkuntza sustatzen duten programak babestea da.

Bigarren dirulaguntza-lerroa, 25.000 eurokoa, sentsibilizazio- eta heziketa-proiektuei zuzenduta dago, eraldaketa sozialari begira. Horrela, Eibarko biztanleen artean elkartasuna, ekitatea edo diskriminaziorik eza bezalako balioak sustatu nahi dira, tokiko erakundeek antolatutako tailer, ikastaro edo jardunaldien bitartez. Proiektu bakoitzeko aurrekontua 10.000 eurokoa izango da gehienez. Eta aipatutako bi horiekin batera hirugarren dirulaguntza-lerro bat sartu da, Elkartasun Bekak modalitateko, 3.000 euroko partidarekin: “Tokian tokiko lankidetzarako proiektuetan parte hartu nahi duten gazte eibartarrentzat izango da. Beka hauei esker, gazteek GKE (Gobernu Kanpoko Erakundeak) aktiboekin zuzenean kolaboratu ahal izango dute atzerrian, gutxienez hilabetez”.

## Zezen-plazatik Sostoatarrenera doazen eskailerak aldatuko dira

Udalak iragarri duenez, zezen-plaza eta Sostoatarren kalea lotzen dituzten eskailera mekanikoak berriztu egingo dira: “Izan ere, asko erabiltzen den azpiegitura da, batez ere Ipuruan partiduak dauken egunetan”. Eskailera hauek 2002an jarri zituzten, eta hogeitau urte baino gehiago martxan egon eta gero, berriki ipintzeko ordua ailegatu dela erabaki du Udalak. Gauzak horrela, lizitazio-prozesua jarri dute martxan, 272.855 euroko oinarritzko aurrekontuarekin. Eskaintzak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 19ra arte egongo da zabalik, eta orduan aztertuko dira obrari lehenbailehen ekiteko proposamenak. Alkateak esan duenez, “bizilagunek aspalditik eskatzen zuten hobekuntza da, eskailera horiek funtsezkoak baitira zirkulazio handiko eremu horretan irisgarritasuna lortzeko”.



## Nordic Walking tailerra emango dute dohainik

Eibar Mogidu herriko inizatibak antolatuta, datorren maiatzaren 16an martxa nordikoko tailer berri bat egingo da Unbe kirol-gunean, 10:00etatik 12:00etara. Doan da, baina parte hartu ahal izateko ize-na eman behar da maiatzaren 13a baino lehen, edozein kiroldegitan.





## Giza Liburutegia antolatu dute, Eibarren dagoen kultura-aniztasuna bistaratzeko

Juan San Martin Liburutegiak eta Inmigrazio eta Kultura Aniztasuna unitateak maiatzerako Giza Liburutegia izeneko ekimena antolatu dute. Azaldu dutenez, “Giza Liburutegiak aukera ematen du estereotipatuak dauden pertsonak ‘irakurri’, haien atzean dauden historiak ezagutu eta gure gizartearen oraindik ere bizirik dauden arrearritziak hausteko. Ekimenaren bidez, oso bizimodu desberdina duten pertsonen arteko solasaldia sortzea ahalbidetzen da, batez ere, beste espazio batzuetan elkartzeko

aukera ez dutenen artean. Azken finean, liburutegiak sozializazio-guneak dira”. Proiektu honetako liburuak, baina, ez dira ohiko liburuak, “beraien bizipenak partekatzen dituzten pertsonak baino. Partehartzaileek aukera dute ‘liburuak maileguan’ hartzeko, eta haiekin solasaldi lasaia eta irekia izateko”. Ekimena Juan San Martin Liburutegian egingo da, maiatzaren 14an, 18:30etik 19:30era. Parte hartzeko interesa izanez gero, izen-emateko epea oraindik zabalik dago (maiatzaren 4ra arte).

## Astelena frontoia zein koloretan margotu erabakitzeko inkesta

Astelena frontoia margotuko dute, eta frontoiaren kolorea aldatzeko aukeraren aurrean, Udalak online inkesta jarri du martxan, herritarren iritzia jasotzeko. Inkesta Udalaren webgunean bete daiteke, domekara arte. Interesa dutenek galdetegian eskaintzen dituzten bi aukeretatik nahiago duenaren alde egin ahalko du: gaur egun frontoia duen kolore berdea mantentzea, edo tonu gris satinatu berri batekin margotzea.



## Errotulazioa euskaraz jarri nahi duten merkatarientzat dirulaguntzak

Hiriko paisaia linguistikoan euskararen presentzia handitzeko asmoz, Udalak errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntza-deialdia kalera-tu du. Argitu dutenez, diruz lagunduko den gastua 2024ko azaroaren 14tik 2025eko azaroaren 15era bitartean egindakoa izan beharko da. Laguntzak hiru kontzeptu ezberdinetarako eska daitezke: errotulu nagusia euskaraz edo ele bietan

jartzeko; lokalaren kanpoko eta barruko inskripzio finkoak euskaraz edo ele bietan jartzeko; edo irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bietan jartzeko. Eskaerak elektronikoki egin daitezke, udal webgunetik ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)). Informazio gehiago nahi duenak webgune horretan aurkituko du, “Tramiteak, bekak, dirulaguntzak” azpiatalean.

# Langileriaren indarra kalean erakusteko eguna

Langileen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu eguenean eta, urtero bezala, langile-mugimenduari kalera irtetzeko deia egin diote sindikatuek, langileen eskubideen alde borroka egitera. ELAK Bilbon eta Iruñean egingo ditu manifestazioak, eta LABek ere hiriburuetara joko du: Donostian ospatuko du aurten Langileen Eguna, eta Debabarrenetik bertara joateko autobusa antolatu dute. Ekitaldi nagusia 12:00etan hasiko da, eta autobusa 10:20an irtengo da Ego-Gainetik. Astelehena da izena emateko azken eguna (LABeko egoitzetan, Guridi tabernan, edo eibar@lab.eus / 635 197 944 WhatsApp-era mezua bidalita). Eta CCOO Euskadiko Langileen Komisioak eta UGT-Euskadi sindikatuek elkarrekin egingo dituzte mobilizazioak aurten ere, EAEko hiru hiriburuetan, eta goiburua bakarrarekin: 'Konkistatu duguna defendatuz, etorkizuna irabazi'.



**A**urtengo Maiatzaren Lehenari begira LAB sindikatuak egiten duen irakurketa orain dela egun batzuk aurkeztu zuen Imanol Karrera bozeramaileak, militante talde zabal batek lagunduta, Iruñean egindako agerraldian. Langileen Egunerako aukeratu duten goiburuak ('Langileen alde gutxienerako soldata eta pentsioak') ederki laburbiltzen du herritarrei helarazi nahi dieten mezua: "Nazioarteko testuingurua geroz eta korapilatsuagoa da. Kapitalaren logika planeta nahiz herritarren bizitza kolokan jartzen ari da, krisi ekologikoak, militarismoak, behartutako migrazio prozesu erraldoiek, indarkeria matxistak edota prekaritatearen hedapenak adierazten dute-nez. Testuinguru honetan, are eta garrantzitsuagoa da Euskal Herriak, Nafarroak ahalik eta burujabetza handiena izatea, bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozioekonomikoa eraikitzeko". Kapitalismoak eragin duen mundu mailako krisi ekosozialari erantzun gisa, bestelako eredu baten alde egiteko unea dela uste dute, "denon bizitzak erdigunean jarriko dituen. Enplegua, zaintza lanak eta ondasuna era justuan banatuko dituen. Euskal Herrian militarismoaren, arrazakeriaren edota indarkeria matxistaren eragina nabarmena bada ere, hemen badago eremu sozial, sindikal eta politiko zabala, denon eskubideen alde egiteko prest". Horrekin batera, langileen borrokaren garrantzia azpimarratu

## Aldarrikapen eta lorpen nagusiak langileen borrokari esker lortu direla gogorarazi dute bi sindikatu abertzale nagusiek

dute beste behin: “Langileon borrokari esker, klase ikuspegitik garrantzitsuak diren aldarrikapenak ekarri ditugu agendaren erdigunera: osasun sistema publikoa, etxebizitza, zaintza sistema publikoa, gutxieneko soldata eta pentsioak. Gai horietan langileon aldeko neurriak ezarriko badira, presio egiten jarraitu behar dugu eremu guztietan: ekintza sindikalean, kale mailan eta eremu politikoan. Gutxieneko soldata eta pentsioak funtsezko neurriak dira aberastasuna banatzeko eta langileen arteko arrakala desberdinak murrizteko”.

Mitzel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak Bilbon egindako prentsaurrekoan nabarmendu zuenez, “negoziazio kolektiboaren eta prekaritatearen kontrako borrokaren emaitzek ELAren hautua, kontrabotere ereduaren aldekoa, berrestera garamatzate; Euskal Herrian erabakitako gutxieneko soldata (LGS) bide horretan beste urrats bat dugu; honek, gainera, borondate soberanista argia erakusten du”. Orain dela hilabete batzuk iragarri bezala, ELAk 1.795 euroko LGS bat aldarrikatzen du, “abertasunaren banaketa justuagoa izan dadin: milaka langileren soldata zenbateko horretatik urrun geratzen da, batik bat sektore feminizatu eta arrazializatuetan”. Zentzu horretan, lan-

baldintza okerrenek dituen jendearen soldata hobetzea lehentasuna da beraientzat eta, horregatik, Confebask eta CEN patronalei gutxieneko proposamena luzatu die ELAk: “Hasteko, 1.500 euroko LGS bat ezarriko litzateke, urtean 14 ordainsaritan. Confebasken erantzuna: negoziazioari uko egitea. Nafarroan, berriz, CENek, UGTk eta CCOOk negoziatzeko jarri zen hitzordura ez agertzea erabaki dute. Baina ELAk ez du ontzat emango patronalak hemengo LGS bat lortzeko aukerari betoa ezartzerik. Horregatik, beste sindikatu batzuekin batera, herri-ekimen legegile (HEL) bat jarri dugu martxan, Gasteizko eta Iruñeko parlamentuek LGS hemen erabakitzea galdegin dezaten”. HELaren aldeko sinadurak biltzerakoan “inplikazio kolektiboa eta pertsonala” beharrezkoak direla azpimarratu du Lakuntzak: “Presioa eragin behar dugu hemengo gutxieneko soldataren alde: Euskal Herriko langilieriarentzat lorpen handia litzateke”. Eskaera nagusi horrekin batera, antimilitarismoaren aldarriarekin irtengo dira kalera Maiatzaren Lehenean, Ane Zelaia Batzorde Eragileko kideak gogora ekarri zuten “armetan diru gehiago xahutuz gero, Osasungintza eta Hezkuntzaren kalterako izango da eta”.



ANTOLATU BORROKATU IRABAZI

2025EKO MAIATZAREN LEHENA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

MANIFESTAZIOAK

BILBO 11:30 IRUÑEA  
Jesusen Bihotzetik Gurutze Plazatik



Konkistatu duguna defendatuz, etorkizuna irabazi

maiatzak 1  
mayo

**CCOO**

BILBO 11:30 Jesusen Bihotza  
DONOSTIA 12:00 Alderdi Eder  
GASTEIZ 12:00 Andre Mari Zaria



PATRONALA, ESPLOTATZAILEA!  
**LANGILEEN ALDE**  
Gutxieneko soldata eta pentsioak  
hemen erabaki

DONOSTIA. 12:00etan Easo plazatik

**LAB'**  
EUSKAL SINDIKATUEN ERALDATZAILEREA

# Liburu-denda gabe, irakurketa bizirik

Yraolagoitia liburu-dendak atek itxi ditu orain dela hilabete eskas. Oraindik badira liburuak saltzen dituzten establezimenduak (Burbujas y más, Ipuruako Eroski eta Calbeton kaleko estankoa, kasu), baina itxiera horrek mota horretako establezimendu espezifiko barik laga du Eibar. Kontrara, irakurzaletasunak oso bizirik jarraitzen du herrian, eta horren erakusle da Juan San Martin liburutegiaren jarduna.

**L**iburuaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen eguaztean. Ospakizun gazi-gozoa eibarrentzat, irakurzaletasuna badago ere, liburu-denda barik geratu garelako berriki. Maite Garciak, Yraolagoitia liburu-dendako azken arduradunak, erretiroa hartu du eta, erreleborik aurkitu ezinik, 85 urteko historia zuen liburu-denda itxita dago orain. Duela 14 urte Ayerbek atek itxi ondoren, hura zen herrian zegoen mota horretako establezimendu espezifiko bakarra (El Corte Ingles eta Eroskiko guneak, zenbait kiosko, Calbeton kaleko estankoa eta 'Burbujas y más' denda albo batera lagatzen baditugu behintzat); beraz, herriko kulturarentzat agur esanguratsua izan da.

Garciak orain dela 11 urte inguru hartu zuen Yraolagoitia dendaren ardura, Mertxe Yraolagoitiak lagatako tokia betez. Historia luzeko liburu-denda Bidebarrieta kalean



egon izan da beti, Sebastian Yraolagoitiak sortu zuenetik. Bera hil zenean Felisa Bilbatua emazteak hartu zuen dendaren ardura, eta 1974az geroztik Mertxe alabak eraman zuen liburu-dendaren gidaritzara, Maitek lekukoa hartu arte.

## Liburutegien eta liburu-denden historia

Eibarko historian aditurik badago, hori Jesus Gutierrez da. Gainera, Maite Garciaren koinatua da eta gertutik ezagutu du Yraolagoitia liburu-dendaren jarduna. Historialari eibartarrarekin atzera begira jarri gara eta gure herrian liburutegiek eta liburu-dendek izan duten pisuaren inguruan jardun dugu berarekin. "XX. mende hasieran jendeak ez zuen liburuak erosteko baliabide ekonomikorik, baina Eibarko soziologiak eta jakintza goseak bultzatuta, alderdi politiko eta sindikatuetera jotzen zuten, bertan egunkariak eta liburu-



Yraolagoitia liburu-dendaren itxierak hutsune handia laga du herrian. EL DIARIO VASCO

ruak edukitzen zituztelako”, kon-tatu digu Gutierrezek.

Liburuak toki ezberdinetan es-kuratu zitezkeen sasoi hartan, baita bitxiak diruditen tokietan ere. Adi-bidez, Alfa lantegian liburutegia zegoen, “tailerra izanda arraroa dirudien arren”, historialariaren ustez. “Alfa izaera soziala izan du beti, ez da ekoiztera bakarrik muga-tu”. Klub Deportiboak ere bazuen liburutegia. “Orain dela urte gutxi-ra arte liburutegi-komisioa zuen, liburu-zainarekin eta guzti. Maile-guak egiten ziren, eta ez bakarrik kirolarekin zerikusia zuten gaien liburuena bakarrik, eleberriak eta bestelakoak ere baizituzten”, kon-tatu digu Gutierrezek.

Herrian zegoen liburu-goseak li-buru-denden irekiera ekarri zuen eta horren erakusle dira Yraolagoitia bera, Ayerbe, Zagora, Neya edo Es-taziño kaleko tren-geltokian zegoen liburu-denda. Gutierrezen esanetan, liburu-dendek bi negozio ardatz zi-

## >>> Yraolagoitia liburu-dendak ateak etxe ditu eta dagoeneko ez dago horrelako establezimendu espezifikorik Eibarren

tuzten: “Alde batetik, tailerrei bu-legoko materiala eta horrelakoak saltzen zizkieten. Ez da gaur egun moduan, Elkar, Montte eta horre-lako enpresa handiek hornitzen bai-tituzte enpresak. Eta bestetik, libu-ruak saltzen hasi ziren poliki-poliki”.

Liburu-denden hazkundeaz gain, baliabide publikoetatik sortu ziren liburutegien presentzia azpimarra-tzen du Gutierrezek. “Portalekoa zabaldu baino lehen, Udal Libu-rutegia udaletxean zegoen, Toribio Etxebarria kalera (lehen, Dos de Mayo) ematen duen aldean. Ez zen oso handia, baina oso gauza iraul-tzailea egiten hasi ziren: maileguak. Horren bitartez, asko merketu zen

liburuak eskuratzeko aukera, ez zirelako erosi behar”, diosku his-torialariak.

### Itxierarako hainbat arrazoi

Liburuen maileguak horiek lortze-ko sarbidea demokratizatu zuen eta, gaur egun, maileguak ez dira liburutara bakarrik mugatzen (pa-perean zein euskarri digitalean), ikus-entzunezkoak eta diskoak ere lortu daitezkeelako. Gainera, Juan San Martin liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko par-taide da eta, horren bitartez, beste liburutegi batzuetako katalogoe-tako liburuak eta bestelakoak lor-tzeko aukera dago. “Ia ezer gastatu



Iñaki Zubillaga Ayerbe liburu-dendaren arduraduna izan zen hainbat urtetan. EKHI BELAR

## >>> Liburu-gosea izan duen herria da Eibar eta gaur egun ere horrela jarraitzen du, ohiturak aldatu diren arren

gabe, mundu bat duzu eskuragai, eta formatu ezberdinetan gainera”, diosku Gutierrezek.

Hori izan daiteke liburu-denden itxieraren arrazoietako bat, baina faktore gehiago hartu behar dira kontuan. “Batetik, bulegoko-materiala saltzen duten enpresa handiek jan egin dute liburu-denda txikien esparrua. Eta bestetik, liburu elektronikoen gero eta eremu handiagoa lortu dute”, historialariaren ustez. “Gailu batean milaka liburu izan ditzakezu eta pirateriaren bitartez liburuak kaleratu baino lehen ere eskuratu dezakezu! Liburu-dendek nola egingo diete aurre errealitate horri?”.

Beste arrazoi bat ere aipatzen du Gutierrezek: “Liburu-dendetako lanak asko eskatzen die langileei, ordu asko eman behar dituztelako bertan”. Hori ondo daki Iñaki Zubillaga ‘Otamotxa’-k, Ayerbe dendako arduraduna izan baitzen 1998tik 2011ra. “Lan asko egin behar da”, aitortzen digu.

Berak ere, azken urteotan, Yrao-lagoitian eskatzen zituen liburuak eta “pena handiarekin” hartu du haren itxiera, “baina gaur egungo egoeraren erakusgarri da”, bere iritziz. Gutierrez bezala, bera ere liburu elektronikoen zalea da, baina paperean irakurtzeko ohitura ere badu oraindik. “Lehen ez

nengoen ez alde ez kontra, baina poliki-poliki ohitura aldatzen joan naiz eta liburu-elektronikoa demaseko asmakizuna da”, bere iritziz.

Besteak beste, liburuekiko maitasunak eraman zuen Zubillaga Ayerbeliburu-dendaren arduradun izatera, “baina azkenean zenbakiak dira garrantzitsuak, edozein negoziotan bezala”, aitortzen digu. Aspaldi Maritxuk eta Pakitak Estaziño kalean zuten liburu-denda hartu zuen Otamotxak, baina alokairua “asko igo” ondoren, Zezenbidera pasa zen 2003an, 2011. urtera arte. Urte onak eduki zituen han, “zenbakiak dagokienez 2005ean eduki nuen urterik onena”, baina harrezkero salmentak jaisten joan ziren eta 2008ko krisiak areagotu egin zuen jaitsiera hori. Beraz, une batean denda ixteko erabakia hartu behar izan zuen.

Bizimodua aldatzen joan da eta, horrekin batera, erosteko ohiturak ere. “Gaur egun, berehala erosi nahi

ditugu gauzak, dendara joatea denbora asko galtzea dela uste dugu, eta horregatik asko jotzen da erosketak Internet bitartez egitera”, diosku Otamotxak. Gauzak horrela, enpresa handiak txikiei gailendu zaizkie. Baina horrek badu B Aldea ere, kasu askotan galdu egin delako atentzio pertsonalizatua jasotzeko aukera. “Lehen jendea gomendio bila etortzen zen eta dendan nituen liburu guztien nolabaiteko eza-gutza eduki behar nuen bata edo bestea gomendatzeko”, gogoratzen du Zubillagak. “Gainera, jendearentzat demaseko gozamina da liburu-dendara joan eta liburuak ukitzea, liburuen azalak ikustea, eta abar”.

### Liburutegiaren paper garrantzitsua

Liburu-denda barik geratu gara herrian, baina irakurzaletasunak bizi-bizirik jarraitzen du. Gutierrez eta Zubillaga izan daitezke horren erakusle garbiak, baina Juan San Martin liburutegiaren datuek ere hori berresten dute. Besteak beste, 2024. urtean, 123.732 bisita jaso zituzten (kopurua %0,42 igo zelaririk), 34.387 mailegu egin ziren (aurreko urtean baino %3,64 gehiago) eta 3.314 irakurle aktibo egon ziren (2023an baino %3,41 gehiago). Horretarako, hainbat ekimen sustatzen dituzte urte guztian zehar, tartean ...eta kitto! Euskara Elkartearekin antolatzen dituen Harixa Emoten saioak, eta hila-bete hauetarako zenbait ekintza prestatu dituzte.

Hala nola, apirilaren 2tik ekainaren 9ra arte ‘Jirabira’ irakurketa sustatzeko jolasean parte-hartzeko



Goian, Eibarko tren geltokiko liburu-denda. Behean, Estaziño kaleko Ayerbe. PLAZAOLA

aukera dago; Egoaziarekin elkarlanean ‘Hezkuntza defendatu, Larraldia itzali’ lelopean kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzeko ekimena jarri dute martxan; eta maiatzaren 14rako Giza Liburutegia ekimena antolatu dute Udaleko Immigrazio eta Kultura Aniztasun sailarekin batera.

Liburutegiaren  
katalogoa



# “Emakumearen estatusa maitatua izatearen arabera neurtzen da hein handi batean”

KARMELE JAIO • Idazlea



Idazlearekin Harixa Emoten irakurle-taldeko apirileko gonbidatua Karmele Jaio izan da. *Maitasun kapitala* (Elkar, 2023) liburuarekin etorri da Eibarrera idazle gasteiztarra. Fikzioaren bitartez, maitatzeko moduari buruzko hausnarketak eraman ditu liburura, eta emakumeengan jarri du arreta.

## **Maitasunaren gaia asko jorratu izan da nobeletan, filmetan, artean... Zein alderditatik heldu diozu zuk?**

Jaso dugun heziketa sentimental ezberdinetatik batez ere. Emakumeei eta gizonei ezberdin irakatsi zaigu maitatzen eta horrek ondorio zuzenak ditu gure harremanetan. Eta hausnarketa bat ere egiten da maitasuna hitza erabiltzen dugunean, zertaz ari garen. Izan ere, gauza askori deitzen diogu maitasuna, eta hortik dator definizio bat egitea oso zaila izatea. Maitasuna deitzen diogun horren atzean ezkutatu daiteke desio fisiko hutsa, norberaren auto-estimurako bitamina baten beharra, bakardadeari diogun beldurra, sozialki onartua izateko bermea, beste norbaitengan boterea izatea... Baina benetan maitasuna dira horiek guztiak, ala maitasuna beste zerbaite da? Eta beste zerbaite bada, zer da?

## **Emakumeetan jarri duzu arreta; izan ere, irakatsi dizkiguten maitatzeko moduak oso barneratuta ditugula diozu. Zein zentzutan?**

Emakumeek ikasi dugu txikitatik maitasuna dela geure bizitzari zentzua ematen dion zerbaite, zentrala, dena ziprizzintzen duena. Ikasi dugu maitasunik gabe ez garela ezer. Bakarririk ez garela ezer. Emakume batek ez badu maitasunik, osatu gabeko gizaki bat bezala ikusiko da. Eta dena eman behar du maitatua izateko. Emakumearen estatusa maitatua izatearen arabera neurtzen da hein handi batean. Erakutsi digute emakume batentzat bikoterik ez izatea antsietate egoera batean bizitzea dela. Bikoterik ez izateak esan nahi du porrota. Txikitatik mehatxatu gaituzte: ez egin hau, ez egin bestea, bestela ez zaitu inork maitatuko. Hori balitza bezala bizitzan gerta dakigukeen gauzarik larriena.

## **Gizonezkoekin ez da gauza bera gertatzen, ez dute horrelako mehatxurik jasotzen...**

Gizonei irakatsi zaie maitasuna bizitzaren beste arlo bat dela, ez dena ziprizzintzen duena emakumeen kasuan bezala. Eta neurri handi batean maitasunetik babesteko heziak izan dira, maitasun harreman batean euren ahuldadea edo zaurgarritasuna agerian geratu daitekeelako.

## **Kosta egiten zaigu oharrea gure maitatzeko modua irakaspen baten ondorio dela?**

Alejandra Kollontai errusiarrak jada esaten zuen: maitasuna da sentimendu sozial bat, sozialki eraikitzen den sentimendu bat. Maitasuna bera ezin da banandu garaiko egoera sozialetik, ekonomiatik, politikatik. Oso eremu intimoan gertatzen den zerbaite da, baina guztiz zeharkatuta dago gizartearen aginduekin. Eta honek dakartzan botere harremanengatik. Baina zaila egiten zaigu onartzea hain zuzen ere oso eremu intimoan ematen delako eta zaila da onartzea gure intimitatean ere sartzen direla gizartearen aginduak. Eta baita eremu honetan botere harremanak antzematea zailagoa delako ere; izan ere, maitasunean ematen diren botere harremanetan, suposatzen da menperatzaileak eta menperatuak elkar maite dutela, eta hori ez da beste botere-harremanetan ematen.

## **Pentsalari feministen teoriak, literaturako pasarteak eta artelanek pisua dute liburuan. Maitasuna, aspalditik, beste egile askoren kezka izan den erakusgarri?**

Bai, ezin esan gai berria denik, asko idatzi da maitasunari buruz, maitasuna artelan askoren gai zentrala da, eta horrek erakusten du gure bizitzan garrantzi handia duen zerbaite dela. Baina ba al dakigu zeri buruz ari garen







## “Gizonak maitasunetik babesteko heziak izan dira, euren ahuldadea agerian geratu daitekeelako”

maitasunaz ari garenean? Maitasuna sentitzen dugu, baina gehienetan maitasuna ez dugu ulertzen. Gutxi dakigu maitasunaz.

**Zeuren jantzi egin behar izan zara gaiari buruz idazteko, ala? Nola elikatzen da idazlea?**

Bai, noski. Kasu honetan liburua zutabe teorikoen gainean idatzi dut. Asko irakurri dut maitasunaz eta artearen eta literaturaren historian nola jorratu den ere, horretaz sakontzeko aukera izan dut liburu hau idatzi bitartean. Baina nik argi neukan fikziozko obra bat egin nahi nuela.

**Kontraesanak ere nabarmenak dira protagonisten artean. Teoria oso argi izan arren, praktikan kontraesanak sortzen zaizkie. Zergatik gertatzen da hori?**

Teoria ondo jakin arren, oso zaila da praktikara eramatea inertzia guztiak kontra dituzunean. Inkontzienteki eskema eta inertzia batzuk oso barneratuak ditugu, maitatzen ikasi dugun moduagatik. Liburuak erakusten du argazki bat egungo emakume askorena. Izan ere, iruditzen zait emakume ausart asko daudela, akademia, enpresa, politika eta aktibismoaren munduan aurrerapauso handiak eman dituztenak, estereotipo, agindu eta boterearen aurka matxinatu direnak, baina oraindik azterketa bat gainditzeko dutenak, ikusi nahi ez duten alde ilun bat: maitasunarekin duten etengabeke kontraesana. Hor arakatu nahi nuen. Gure gorputzetan maitatzeko modu bakarra daukagu zizelkatuta. Horren kontrako barne-borroken arakatu nahi nuen.

**Izenburuan ageri den “kapitala” hitzarekin zer esan nahi izan duzu?**

Kapitala hitzak zentzu ezberdinak ditu. Batetik, maitasuna gure bizitzaren eta heziketa sentimentalaren erdi-

gunean dagoela, kapitala da, beraz. Eta, bestetik, bada modu bat adierazteko garai bakoitzak bere maitatzeko modua baldin badu, gure garaia dela kapitalarena eta merkatuarena. Eta galdetzeko modu bat da: Merkatuaren logikak zer eragin du gure maitatzeko moduetan? Kapitala eta merkatua nagusi diren gizarte honetan, maitasuna konpartitzen dugu edo gero eta gehiago kontsumitzen dugu? Tinderren garaian, eskaintza handi horrek, ez al du antsietate eta insatisfakzio bat sortzen? Individualismoaren garaian, gure maitasunak gero eta nartzisistagoak dira?

**Gauza berriak deskubritu dituzu?**

Liburu bakoitzean deskubritzen dituzu gauza berriak. Niretzat idaztea beti da deskubrimendu bat. Gauza berriak deskubritzeko idazten dut.

**Arrastoa uzten duen liburua dela dio kontrazaleko testuak. Zuri ere arrastoa utzi dizu idazterakoan?**

Bai, maitasunaren disekzio horretan emozio guztietatik pasatu naiz idatzi bitartean eta bai, arrastoa utzi dit. Liburu bat idazten dugunean, mundu horretan barneratzen gara eta han gertatzen dena benetakoa bezala bizitzen dugu.

**Nola eta nondik hasten da Karmele Jaioren idazketaren prozesua?**

Abiapuntua beti izaten da irudi bat. Irudi bat sortzen da nire buruan eta hortik hasten naiz hariari tiraka. Kasu honetan hileta baten irudia. Eta ez da kasualitatea. Buakaera bat sinbolizatzen du, eta aldi berean hasiera. Ez da bakarrik harreman baten bukaera, baizik eta maitatzeko modu baten bukaera.

**Zer duzu esku artean?**

Badaukat zerbait hasita, baina oraindik definitu gabe.

# AUTOEN GEHIGARRIA

2025eko apirila

## Asegurua berritzeko unea iristen denean...

Zure auto-asegurua berritzeko unea iristen denean, garrantzitsua da hainbat alderdi berrikustea, ondo babestuta zaudela eta kalitate-prezio erlaziorik onena lortzen duzula ziurtatzeko. Hemen dituzu kontuan hartu beharreko funtsezko puntuak:

- **Estaldurak eta mugak:** Aztertu zer estaldura dituzun, besteak beste, erantzukizun zibila, lapurreta, sutea, errepideko laguntza eta norberaren kalteak. Ziurtatu zure beharretara egokitzen direla eta, behar izanez gero, kontuan hartu estaldurak handitzea.

- **Estaldura gabekoak eta baldintzak:** Irakurri ondo aseguruaren esklusioak eta baldintzak, zer egoera ez dauden estalita eta zer baldintza bete behar dituzun erreklamazio bat egiteko.

- **Prima eta deskontuak:** Alderatu ordaintzen duzun prima merkatuko beste eskaintza batzuekin. Galdetu ea



deskonturik dagoen gidari onagatik, konpainia berarekin beste aseguru batzuk izateagatik edo autoan segurtasun-gailuak instalatzeagatik.

- **Kengarriak:** Ezbeharren bat gertatuz gero, egiaztatu zenbat ordaindu beharko zenukeen poltsikotik eta kengarriak egokiak diren zuretzako.

- **Errepideko laguntza:** Baieztatu zer laguntza mota eskaintzen

duzen, zein eremutan, eta garabia, ordeko autoa edo laguntza bezalako zerbitzuak estaltzen dituen matxura izanez gero.

- **Automatikoki berritzeko baldintzak:** Poliza batzuk automatikoki berritzen dira, baina garrantzitsua da berrikustea baldintzetan edo prezioan aldaketarik dagoen eta aseguru-etxe berarekin jarraitu nahi duzun edo beste aukera batzuk aztertu nahi dituzun.

- **Merkatuko balioa edo aseguratutako balioa:** Ziurtatu balio aseguratua nahikoa dela zure autoaren benetako balioa estaltzeko, guztiz galduz gero.

- **Ospea eta bezeroarentzako arreta:** Ikertu aseguru-etxearen ospea erreklamazioen kudeaketari eta bezeroarentzako arretari dagokienez, ezusteko desatseginak saihesteko.



**MAPFRE**  
**Ubitxa**

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

☎ 943 82 04 49

☎ 688 871 717

✉ [mubera@mapfre.com](mailto:mubera@mapfre.com)

## Gure maskotaren segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko aholkuak

Errepidez bidaiatzen dugunean gure maskotak zaintzea funtsezkoa da haien segurtasuna, ongizatea eta erosotasuna bermatzeko.

- **Geldialdiak sarritan egin:** Garrantzitsua da 2-3 orduro etenaldiak egitea gorputza luzatzeko eta txiza eta kaka egitera joan daitezen. Horrek estresa eta deserosotasuna murrizten laguntzen du.

- **Hidratazioa eta elikadura:** Eraman nahikoa ur eta zenbait snack edo janari kantitate txikitan, bidaiari zehar goserik edo egarririk ez izateko. Hala ere, saihestu gehiegi elikatzea irten aurretik, zorabioak edo ondoeza prebenitzeko.

- **Segurtasuna garraioan:** Erabili garraiagailua, arnesa edo segurtasun-hesiak, maskota autoaren barruan gehiegi mugi ez dadin eta bat-batean balaztatuz gero babestuta egon dadin.

- **Erosotasuna eta familiartasuna:** Manta, jostailua edo ezaguna zaion zerbait eramanez, ingurune berri batean lasaia eta seguruago senti dadin.

- **Temperatura egokia:** Ziurtatu autoak tenperatura atsegina duela, ez oso beroa, ez oso hotza, eta saihestu maskota eguzkiaren zuzeneko argitan jartzea denbora luzez.



- **Identifikazio eguneratua:** Egiaztatu zure kontaktuarekin identifikatuta dagoela, bidaiari galtzen bada.

- **Kontsulta ezazu albaiariarekin:** Bidaiatu aurretik, komeri da albaiariarekin kontsultatzea, batez ere maskotak osasun arazoren bat baldin badu eta medikazioa behar badu.

**ACITAIN, S. A.**  
www.acitain.com ZERBITZUGUNEA

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

AVIA

Barrena, 19 943 121662/943 121862 acitain@gmail.com

**GARAJE Legarre**

autoen mantenua eta konponketa  
943 20 63 71 Legarre, 2

**GASOLEOEN BANAKETA**

estación de servicio **kantoi**

20.000 L. 2.000 L.

24 ordu

Otaola etorbidea, 13-Bis  
Tinao. 943 20 73 74 / 94 671 02 77 GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOIA

**HEMEN DUZU ZURE**  
943 20 67 76  
**IRAGARKIRAKO TOKIA**

# Guztion sergurtasunerako azterketa tekniko

IAT (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa) betebeharrantz garrantzitsua da ibilgailuen jabe guztientzat. Nahitaezko berrikuspena da, zirkulazioan dauden ibilgailuak seguruak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak direla bermatzen laguntzen duena.

Jarraian datu batzuk:

- Kamioiek matrikulatu eta bi urtera gainditu behar dute IAT lehen aldiz, ziklomotorrek hiru urterekin egin behar dute, eta erabilera partikularreko autoek eta motorrek lau urte betetzean pasatu behar dute. Taxien kasuan, pertsonak garraiatzeko ibilgailu profesionalak direnez, azterketa urtero egin behar dute bosturteko bat bete arte, eta, ondoren, sei hilean behin. Lehen berrikuspena gainditu ondoren, beharrezkoa da aldizka berriro pasatzea.
- Milioika ibilgailuk pasatzen dute urtero IATa, eta gehienek azororik

gabe egiten dute. Gainditze-tasa handia izaten da, baina, kasu batzuetan, antzinasun handiena duten edo egoera txarrean dauden ibilgailuek zailtasun gehiago izaten dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoan IAT estazioen azpiegitura ona dago.

- IAT enpresa baimenduek kudeatzen dute eta Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat ikuskapen-gune daude probintzia desberdinetan banatuta. Horieta edozein aukera dezakezu, baimenduta badago eta erabilgarri badago. Nahi izanez gero, EAetik kanpo ere egin dezakezu.
- IATaren prezioak zertxobait aldatzen dira autonomia-erkidegoaren eta ibilgailu-motaren arabera.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, prezioak estatuko batez bestekoaren antzekoak izaten dira, baina aldatu egin daitezke ibilgailua partikularra edo garraiokoa den edo ezaugarri be-



reziak dituen kontuan hartuta. Oro har, 30 eta 60 euro arteko kostua dute ibilgailu partikularrek, baina, kasu batzuetan, garestixeagoa izan daiteke azterketa sakonagoa behar izanez gero.

- Estazio batzuek zerbitzu gehigarriak eskaintzen dituzte, hala nola aurretiko doako berrikuspenak edo deskontuak leku berean hainbat ikuskapen egiten badituzu.

**AUTO KONPONKETAK AURRERA**

- Eibar endigunean, 1995az geroztik diharduen tailerra jubilazioagatik eskuz aldatzen da
- Funtzionamendu betean eta guztiz homitua
- Galdetu baldintzengatik!

Urtzalle, z/g 943 20 80 65 autoaurrera@outlook.com

**MAK CARROCERIAS** Matsaria, 2 3 Pabilioia -Eibar-

**Pintura (labean lehortua) Txapa Neumatikoak Mekanika**

943 208 502 carrocerias\_mak@hotmail.com 699 203 791

**VALDI TAILER MEKANIKOAK**

Barakaldo 19, behea tmvaldi@hotmail.com  
Telf. 943 12 73 98 Mug. 639 00 46 03

- Autoen mantenu eta mekanika orokorra
- Injekzio mekaniko eta elektronikoa
- Aire egokitua
- Diagnosi elektronikoa
- Errobera aldaketak

# 2024ko errenta aitortpena euskaraz egitera deitu dituzte herritarrak



laz Eibarren egin ziren errenta aitortpenen %12 inguru euskaraz egin ziren eta, kopuru hori handitzen jarraitzeko, herritarrek aurtengo errenta aitortpena ere euskaraz egin dezaten animatzeko kanpaina abiarazi dute Eibarko Udalak eta Eibarren AKEBAI plataformak. Beraz, astindu ohiturak! Ea oraingoan 2.000ra iristen garen!

**E**rrenta aitortpena egiteko sasoiari bete-betean sartuta gaude, eta Gipuzkoan ekainaren 30era arte iraungo du.

Azken urteotako datuei begiratu, 14.700 herritar inguruk egin du errenta aitortpena Eibarren, eta horietatik 1.700 inguruk euskaraz egin dute (%11,5). Kopuru hau urtero handituz joan da, eta Eibarko Udalaren asmoa edo erronka 2.000ra iristea da. Horretarako, aurreko sei urteetan bezala, Errenta Aitortpena Euskaraz kanpaina abiatu dute Eibarren AKEBAItik.

## Euskara normalizatzekeo urrats bat gehiago

2008tik Foru Aldundiak urtero pasatutako datuak ikusita, errenta aitortpena euskaraz egiten dutenen kopuruak Eibarren ere gora egin duela esan digute Eibarren AKEBAIko Maider Urbietak eta Arkaitz Urangak.

Maiderek azaldu digun moduan, "bere bizitzako esparru guztietan euskaraz bizi nahi duenarentzako

garrantzitsua da gogoraraztea administrazioarekin ere egin dezakeela euskaraz; hori bere hautua da, eta tramiteak hizkuntza horretan egin nahi baditu administrazioa ere prest dagoela jakin behar du. Euskara normalizatzekeo eta arlo guztietan presente egoteko beste modu bat da azken batean".

Errenta aitortpena bezalako tramite burokratikoak egiterakoan askotan erosotasunera jotzen dugula dio Arkaitzek. "Ohituragatik bi aldiz pentsatu gabe gaztelerara jotzen dugu, eta, horregatik, kanpaina hauek baliagarriak dira buruari klik egin eta konturatzekeo esparru haueetan ere euskara erabili dezakegula".

## Zailena lehen aldia

Errenta aitortpena egiteko dauden hiru moduetako bakoitzean (autolikidazioa, mekanizatua edo Internet bidez) euskara aukeratu daitekeela gogoratu digute AKEBAIko ordezkariak.

Gauza guztietan bezala, zailena lehen aldia da kontu horretan ere:



Eibarren AKEBAiko Maider Urbietta eta Arkaitz Uranga. ANAAIZPURUA

"Errenta aitortpeneko terminologia edo hiztegi hori urtero errepikatu-ko da. Hasieran hizkuntzara ohi-tu beharko gara, eta horretarako badaude hainbat erreminta, baina behin dinamika hartuta errazagoa izango da", esan digu Maiderrek.

Euskara aukeratzearen garrantzia bereziki jende gazteari edo errenta aitortpena lehen aldiz egiten dute-

nei azaldu nahi izan die Arkaitzek: "Zure lehen edo lehenengoetako errenta aitortpenetan euskara aukeratzeko baduzu, ziurrenik bizitza osoan euskaraz egingo duzu. Terminologia beti da konplikatu hizkuntza batean zein bestean, eta, horregatik, klabea da hasieran hau-tu hori egitea etorkizunera begira euskaraz egiten jarraitzeko.

**"2023ko kanpaina 1.727 izan ziren. Ea oraingoan 2.000ra iristen garen!"**

**Astindu  
ohiturak!!  
Zelan?**



*Errenta aitortpena?*  
**EUSKARAZ!!!**  
**Zure aukera da!**

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
- **Mekanizatua egiteko:** 1) ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula  
2) aitortpena egiterakoan, gauza bera.
- **Internet bidez** egitean, jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.



Eibarren  
**AKEBAI**



36 borrokalari bilduko ditu biharko jaialdiak. Aurretik, gaur bertan, pisaketa ekitaldia egingo dute Untzagan.

## Astelenak 18 borrokako Thermopylae ekitaldia hartuko du bihar arratsaldean

Borrokaldiak gustoko dituztenak zorionsu dira, Topinburu Kirol Elkarteak, SA Fight Companyk eta Sakura Team-ek antolatuta, amateur mailako arte martzial mistoen jaialdia ekarriko baitute Astelena frontoira. Ekitaldiak 18 borrokaldi izango ditu guztira, “Eibarko dozena bat borrokalari, Elgoibarko eta Ermuko batzuk eta Euskadiko hiriburuetakoko beste ordezkari batzuen parte-hartzearekin”. Frontoiko atepak arratsaldeko 16:00etan zabalduko dira eta handik ordubetera ekingo diete borrokei; ekitaldia ez da laburra izango, eta 22:00 inguruan amaitzea aurreikusten dute. Bezperan, gaur bertan, borroken aurreko pisaketa ekitaldia egingo

da Untzaga plazan, arratsaldeko 19:00etan hasita, 36 borrokalariak bertan direla. Guztien herenak Eibarko gimnasioetan egiten dute ohiko prestaketa; tartean dira Achraf, Las Heras, Cuenca, Rios, Etxeberria, Youssef, Agirregomezkorta, Rocha, Nuñez edo Salim.

Sarrerak dagoeneko salgai daude, 20tik 35 eurotara, Sakura gimnasioan, Inda Team-en eta Ronin Eibar-en. MMA eta K1 mailetakoko borroka katiolaren barruan egingo dira eta, aipatutako guztien artean, badira hiru emakumezkoen artekoak. Jaialdiaren izena Termopiletako bataila ospetsutik dator eta bertan mila lagunetik gora izatea espero dute antolatzaileek.

## Deporreko maiatzeko bi irteeren datak elkartrukatu dituzte

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordearen egutegian maiatzeko iragarritako bi irteerek datei eutsiko badiete ere, hilaren bigarren asteburuan egitekoa zena azken asteburura pasatuko da, eta azken astebururako iragarritakoa bigarrean egingo dute. Horrela, maiatzaren 10ean Nafarroa Extreme Goitiko gaina egingo dute, eta hilabete horretako azken egunean, 31n, GR 322 Nafarroa Extreme Adiri helduko diote. Irteerarako izena eman daiteke Deporren bertan.



Bestalde, 26 lagun izan ziren bi-daikide apirilaren 12an Gorriti nafar herrixkatik irten eta Gipuzkoako Berastegin amaitu zen txangoa

egiten. Eguraldia lagun, paisaiaz gozatzeko parada egokia izan zuten, azken zaparradak autobusean bueltan harrapatu baitzituen.



LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29 *Enkarguak etoera*




merchandising  
serigrafia  
lanerako erropa

www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behas



## Etzi jokatuko da CCE-ren egitarauko bigarren lasterketa

Kadete mailako Eibarko Txirrindulari Elkartearen VIII. Saria izango da jokoan etzi, oraingoan Beltran Sari Nagusiaren izenarekin. Lasterketa Untzagatik irtengo da 10:15ean eta eguerdiko 12:00etarako aurrekusten da proba amaitzea, aurreko urteetan bezala Urkizuko parkean. Guztira 68 kilometroko ibilbidea osatuko dute parte-hartzaileek, Eskoriatzaraino joan eta handik bueltatzeko, itzulera San Prudentzioko errotondatik Oñatik Zubillaga



auzoraino joan ondoren berriro ere bertatik pasatzeko.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

SD EIBAR - Espanyol (bihar, 17:00)

#### Gizonzkoen 2. Maila

Tenerife - SD EIBAR (etzi, 18:30)

#### Gizonzkoen 2. Maila RFEF

SD Logroñes - SD EIBAR B (etzi, 12:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Pradejon (bihar, 16:30)

#### Gizonzkoen 3. Maila RFEF

SD EIBAR C - San Viator (bihar, 12:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Ugao - SD EIBAR C (etzi, 17:00)

#### Ohorezko Jubenil Maila

SD EIBAR - Santutxu (etzi, 16:30)

#### Jubenilen Nazional Liga

Zarautz - SD EIBAR B

#### Jubenilen Euskal Liga

URKI - Ariznabarra (etzi, 13:15)

#### Kadeteen Euskal Liga

Vasconia - SD EIBAR (bihar, 17:30)

### ESKUBALOIA

#### Gizonzkoen 1. Nazional Maila

Trapagaran - MEK EIBAR (bihar, 19:00)

### FRRUGBIA

#### Gizonzkoen Euskadiko Liga

EIBAR RUGBY - Durango (bihar, 15:30)



## Ipuruak Futbol 7 PC Liga Nazionaleko etxeko taldearekin gozatu zuen

Ipuruako Anexo zelaiak hartutako Futbol 7 PC Liga Nazionalaren 6. eta 7. jardunaldietan lortutako bigarren argiekin, SD Eibar Fundazioak maiatzaren 10ean Bartzelonan playoffa jokatzeko txartela eskuratu du. Lehiaketak garuneko paralisia eta hartutako kalte zerebrala dutenekin osatutako zazpi talde aurrez aurre jarri zituen.

1. Mailako sailkapeneko goi postuetako lehian, Andoni Igartuak gidatzen duen taldea bere zaletuen aurrean estreinatu zen Bartzelonako Disport taldearen aurka. Victor

Vareak, Daniel Ibarrek bitan, Yerrick Martinezek eta David Gamizek egindako golekin, eibartarrek 5-1ekoa lortu zuten kataluniarren aurrean. Domekan ere garaipen argia eskuratu zuen SD Eibarrek, 4-0arekin, Raul Diaz bitan, Daniel Ibarrek eta David Gamizek egindako golei esker. Orain taldeek maiatzaren 10era arte itxaron beharko dute, Bartzelonako Vilanova i la Geltrun jokatu den playofferako. Lehen faseko lau talde onenak izango dira bertan, tartean SD Eibar Fundazioa.

## Sergio eta Arbilla SD Eibar-ekin gehien jokatu duten hamarrekoan

Sergio Alvarez asturiarrak Ander Capa hegalekoa gainditu du hamarreko horretan eta, orain arte jokatuak 216 partidurekin, 10. postura igo da sailkapen horretan. Berarekin batera Hypermotion Ligan jokatu duen Anaitz Arbilla taldekidea bosgarren da aipatutako sailkapenean, 5. postuan eta 271 partidurekin. Jose Ignacio Garmendia atezainak jarraitzen du nagusi izaten SD Eibar-en elastikoa jantzi dutenen artean, 443 partidurekin; bere atzetik daude Oskar Artetxe eibartarra, Bixente eta Luluaga.



## Rocio Candalek hartuko du Jordi Torresen tokia

SD Eibarko emakumezkoen saileko ardura lehenengoz emakume baten eskuetara pasatuko da denboraldi honen amaieran. A Coruñan jaiotakoa bertako taldeko kirol zuzendaria izan zen eta, ondoren, baita Suitzako Grasshoppers taldekoa ere. Suitzako taldean emakumezkoen saileko ikuskatzaileen arduraduna izan da orain arte. Sei urtetan postu horretan izandako Jordi Torresek uztailean pasatuko dio lekukoa Candali.

## Carmen Alvarezek beste denboraldi baterako luzatu du kontratua

F Ligako SD Eibar-eko aurrelariak 2026ko ekainera arte berritu du talde armaginarekin zuen konpromisoa. Salamancakoa neguko merkatuan iritsi zen aurretik ere, 21-22 denboraldian, jokatu izandako taldera, Betisen bi urte eta erdi eman ondoren. Iritsi zenetik jokatutako partidua guztietan hartu du parte, baita bi gol sartu ere. Atletico de Madrid taldetik lagata etorri zenean, hamar partidutan bost gol sartu zituen. Carmen Espainiako selekzioa beheto mailetako jokalaria izan da, 19 urtez azpikoarekin Eurokopa irabaziz Txekiar Errepublikan eta Mundiala Costa Rican.

## Bittor Ugarteburu garaile Asola Berrin eta lider Gipuzkoakoan

Eibarko bolatokian jokatutako Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketako bosgarren jaurtialdian 67 bolarik hartu zuten parte guztira, eta Asola Berrikoa nagusitu zen etxean jokatutako lehian. Bittor Ugarteburuk sei txirlo bota zituen eta kopuru bera lortu zuen Floreagako Erik Muñozek. Hirugarren geratu zen Anartz Esteban eibartarra, bostekin, laugarrena San Migueleko Iker Izagirre izan zen eta bosgarren sailkatu zen Asola Berriko Pablo Davila ere, azken bi horiek lau txirlo botata.

Emaitza horiekin, 54. Gipuzkoako hiru-txirlo Txapelketako sailkapen nagusian Bittor Ugarteburuk alde polita hartu du lidergoan, lau txirlo ateratzen baitio Anartz Esteban taldekideari. Asola Berriko bi



ordezkarien atzetik Xabier Loiola (San Miguel) eta Oier Azumendi (San Andres) daude, hauek bost txirlora. Bikoteka eta taldeka Elgoibarko San Miguelekoak dira nagusi une honetan, Asola Berrikoen aurretik. Zapatuan txapelketako seigarren tiraldia izango dute, Elgoibarko San Pedroko bolatokian.

## Casinoko billar jokalariek aurretik duten Valladolid hartuko dute bihar gurean

Billarreko 2. Maila Nazionaleko liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Cmultzoko bigarren eta hirugarren postuetan sailkatutakoen arteko lehia izango dugu bihar. Hiru bandetara jokatzen duten torneoan, gaztelarrak eibartarren aurretik daude eta, horrez gain, mailako jo-

kalari onenak ere eurekin jokatzen du. Ricardo Robles, Jorge Molinos, Jon Alberdi eta Sergio Boullasak osatuko dute Casinoko deialdia. Betiko lez, aforoa bete arteko aukera izango da partidak ikusteko: 10:00etan hasiko da lehen txanda eta 12:00etan bigarrena.



## LAN ESKAINTZA

## Kazetari-diseinatzailea behar da

## ESKATUKO ZAIO

- Kazetaritza, komunikazioa edo pareko unibertsitate ikasketak izatea.
- Euskara maila oso ona izatea.
- Eibarkoa izatea edo Eibar ondo ezagutzea.
- Diseinu grafikoan prestakuntza izatea.

## ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin).
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea.
- Ordutegi malgua.
- Proiektu erakargarria/ Langiro atsegina.

## BALORATUKO DA

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea...
- Bideogintzan eta argazkigintzan ezagutzak izatea (Adobe Premiere, Photoshop edo antzerakoak).

CVak bidaltzeko epea  
apirilaren 28ra arte

[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

**eta kitto!**  
euskara elkartea

# Badator familien arteko ALTXORRAREN BILA!



**Maiatzak 9**

OSTIRALA

17:15etik aurrera

*Eman izena*



[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

# Dantzak kalera guztion gozamenerako

Hilaren 29an ospatuko da Dantzaren Nazioarteko Eguna eta, horren harira, hurrengo egunean, 30ean, ekintza bereziak egingo dituzte herriko dantza taldeek eta akademiak. Horrela, azken urteotako joerari jarraituz, kalera irtengo dira herrian dugun eskaintza eta dantza egiteko gaitasuna erakustera.



**H**erri dantzaria da Eibar. Horren erakusle garbiak dira gurean ditugun dantza talde eta akademia guztiak, baita urtean zehar egiten diren dantza ikuskizunak ere, baina Dantzaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta egiten den ekitaldi bereziak argiago lagatzen digu hori urtero.

Azkenengo urteotan, herriko dantza eta akademiak eskutik joan dira egun berezia ospatzeko. Horrela, herriko zenbait txokotan erakustaldiak egin ondoren, Untzagan emanaldi berezia eskaini izan dute eta aurten ere, bide horri jarraituz, antzeko zerbait egingo dute, baina aldaketekin.

Ballet Eibarres, Beheko Tokia, Eibarko Dantza Eskola, KAXA, Kezka, Koa, Pagatxa, La Salsa de Cuba eta Untzagako Jubiletxea izango dira aurten kalera irtengo diren dantza talde eta akademiak, eta herriko zenbait tokitan arituko dira dantzan lehenik, 17:30ean: Ipuruan, Legarren, Urkizun eta Legarren, hain zuzen ere. Gero, talde guztiak Untzagan elkartuko dira eta harmailen aurreko parkean ikuskizun berezia eskainiko dute.

Dantza egin eta herri guztia dantzan jarri ostean, egunari amaiera emateko, 20:30 inguruan, Gauragi taldearen eskutik erromeria egongo da Untzagako plazan.



Dantzak herriko toki ezberdinetara eramango dituzte talde eta akademiek. EIBARKO UDALA

### **Dantza, adierazpen eta elkargune**

Dantzaren Nazioarteko Eguna UNESCOk 1982an ezarri zuen, eta ordutik mundu osoan ospatzen da. Helburua dantza artea gizartearen zabaltzea eta dantzaren bidez kulturartekotasuna eta elkarbizitza sustatzea da. Eibarren, urtero bezala, dantza-taldeen eta eskoletako ikasleek beren lana eta grina herritarrei erakusteko aukera dute eta,aldi berean, herritarrek dantzan parte hartzerantz animatzen dira.

Dantzak, gainera, belaunaldi ezberdinak eta jatorri anitzeko pertsonak batzen ditu. Horrela, Eibarko kaleetan egingo diren erakustaldietan, haur, gazte eta helduek parte hartuko dute, eta horrek agerian uzten du dantzak duen komunitatea sendotzeko eta harremanak estutzeko gaitasuna.

Aurreko hiru edizioetan demaseko harrera izan du Dantzaren Nazioarteko Egunaren inguruko ekimen horrek. Izan ere, herritarrek eskertzen dute dantzak herriko txoko ezberdinetara eramatea. Jende ugari bildu ohi da, bai auzoetan bai Untzagako harmailetan, eguraldia lagun izaten bada behintzat.

Hasieran aipatzen genuen Eibar herri dantzaria dela eta zenbakiek berresten dute hori. Datuen arabera, 1.200 lagun inguru ibiltzen dira astero-astero dantzan gure herrian. Gainera, hilaren 30eko ekintza ez da dantzarietzako bakarrik berezia izango, dantzak guztioi eragiten digulako. Antolatzaileek dantza egitea aldarrikatu nahi dute, talde edo akademia batean egon ala ez, dantza guztioi eragiten digun jarduera delako. Horregatik, egunaren amaieran egingo den erromeria aukera ederra izango da guztiok gorputza astintzeko.

**Hilaren 30ean dantza erakustaldi bereziak egingo dituzte kalean Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko**



## Euskaraldiaren hurrengo MAHAIA maiatzaren 9an jarriko da Errebalen

Apirilaren 12an Eibarko Eibarren AKEBAIren gidaritzapean, Euskaraldia antolatzen diharduten elkarte eta erakundeetako kideek 2025eko Euskaraldiko txapak banatu zituzten San Andres elizako plazan. Bertan, Euskaraldiari buruzko informazioa eta izen-emate orriak ere eskuragarri egon ziren.

Euskaraldia erakunde publikoek zein gizarte eragileek sustatutako ekimena da, euskararen erabilera bultzatzera begirako 11 eguneko ekintza. Euskaraldia euskara gehiago, gehiagotan eta jende gehiagorekin egiteko elkarrekin egiten den ariketa sozial bat da. Aurtengoa 4. edizioa izango da eta lelotzat “Elkar mugituz egingo dugu” izango du.

Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era egingo da. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte Ahobizi edo Belarriprest txapa jantzirik; izen-ematea herrian zehar hainbat egunetan jarriko diren mahaietan edota euskaraldia.eus webgunean egin daiteke.

Eibarko Udalak ariketa modu sakon batean egiteko konpromisoa hartu du, eta Udaleko langileei begira lanketa berezia prestatu du; neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktikak aldatzeko eta horiei etorkizunean eutsi ahal izateko, eguneroko harremanetan euskarari lehentasuna emanez. Aiora Arrieta Euskara Saileko buruak honela dio: “Animatu Euskaraldian parte hartzera, euskara bultzatu eta sustatu behar dugu, eta hori guztion artean lortu dezakegu Eibarren euskaraz gehiago hitz egiten, gure kaleetan gehiago entzun dadin; animatu txapak janztera!”.

Izena emateko eta txapak jasotzeko hurrengo mahaia maiatzaren 9an, barixakua, Errebalen jarriko da, 18:30ean.

## Apirilaren 28tik aurrera TXAPAK hainbat lekutan egongo dira eskuragai

Eibarko hainbat lekutan eskuratu ahal izango dira Euskaraldiko txapak astelehenetik (apirilak 28) aurrera, Txapekin batera orri-markatzaileak oparituko dira.

### 1. EUSKARA ZERBITZUKO BULEGOA

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 07:30 - 15:30.

Helbidea: PORTALEA eraikineko 2. solairua. Bista eder 10.

### 2. UDAL EUSKALTEGIA

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 08:30-14:00 eta 16:30-19:00.

Ostiraletan 08:30-14:00.

Helbidea: PORTALEA eraikineko 2. solairua. Bista eder 10.

### 3. AEK

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 17:00 -19:00.

Helbidea: Sostoa 1-1.

### 4. ...eta kitto! Euskara Elkartea

Ordutegia: 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00.

Helbidea: Urkizu pasealekua 11.

### 5. ARMERIA ESKOLA

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 08:00-21:00.

Ostiraletan 08:00-20:00.

Helbidea: Isasi 36.

### 6. EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

Ordutegia: Asteartetik ostiralera 18:00 - 20:30.

Helbidea: Toribio Etxebarria 16, 1. solairua.





*Elkar mugituz  
egingo dugu*



### **Davide Cerchi**

*Zergatik onartu zenuen  
Euskaraldiko Hamai-  
kakoko kide izatea?  
Zein eremutan uste duzu  
izango duela eragin  
handiena Euskaraldiak?*

Euskara altxor handia da, oso garrantzitsua, eta denon artean zaindu eta elikatu egin behar dugu. Hori kontuan hartuta, oso gustura hartu dut Euskaraldiko enbaxadore izateko gonbitea, Euskaraldia euskara gehiago egin eta entzuteko prestatutako ariketa delako.

### **“Edonon euskara gehiago erabili behar dugu. Euskara denon ardura da”**

Gauza bat argi daukat: orain euskararen erantzun-kizuna irakasleen eta eskolen bizkar gainean dago. Haurrek euskara obligazio edo betebeharrak bezala ikusten dute, eta hori aldatu egin behar dugu. Aisialdian euskararen erabilera bultzatu beharra dago: kirol eremuan, modian, hondartzan, tabernetan... Edonon euskara gehiago erabili behar dugu.

### **Euskaraldiko Eibarko BIDEOKLIPA: parte hartzeko deialdi irekia**

Eibarren AKEBAItik diotenez, "Eibarren buru-belarri ari gara lanean Euskaraldia martxan jartzeko, eta aurten ekimen berezi bat dugu esku artean: aurtengo edizioako abesti ofizialaren bertsioko grabatu dute Jon Alonso abeslariak eta Eibarko Koru Gazteak, eta abesti horri bideo klip bat grabatuko diogu".

Bideo klippean eibartarrei beren tokia emateko, parte hartzeko deialdi irekia zabaldu dute: apirilaren 27an (domeka), arratsaldeko 19:00etan Untzagan.

Bideo klippean agertu nahi duen oro gonbidatuta dago bertaratzera.

Animatu zaitzete! Elkar mugituz egingo dugu!



### **Soko Baskaran**

*Zer ekarpen egin diezaioke  
Euskaraldiak euskara-  
ren erabilerari Eibarren?  
Badago euskaraldiaren  
inguruko estereotipo eta  
aurreiritzirik?*

Erabilera jakintzarekin dago lotua, euskaraz dakien jendearekin. Pertsonalki nik euskaraz dakien jende asko daukat inguruan, beraz ia beti euskaraz hitzegiteko aukera dut.

Euskaraz ez dakien lagun eta ezagunak ere badituz, eremu ez euskaldunetik etorriak, baina seme-alabei euskaraz ikasteko garrantzia transmititu dietenak. Oraingo guraso eta belaunaldi berriek, berriz, ez dut uste seme-alabei dugun altxor hori babesteko kontzientzia edo beharra

### **“Aisialdian euskaraz jardutea garrantzi handikoa dela uste dut, eta horretarako euskarak gure parte izan behar du, gure buru eta bihotzetan egon behar du, gure barruan”**

beharrak bezala transmititu dietenik. Euskaraldiak, hein batean, hori sortzeko balio dezake, arnasmuneak sortuz; guk ez baldin badugu inguruan kontzientzia hori sortzen, dugun altxor hori galtzeko arriskua dugulako.

Euskaraldia aldi baterako euskararen erabileraren zerbait izatetik eguneroko zerbait bihurtzea lortu behar genuke.

Aisialdian euskaraz jardutea garrantzi handikoa dela uste dut, eta horretarako euskarak gure parte izan behar du, gure buru eta bihotzetan egon behar du, gure barruan.

Denena, beste inon aurkitu ezin den altxor bat daramagulako, gutariko bakoitza delako euskararen arnasmune. Euskarak bizi irauteko arnastu behar duelako, poteoan, kirola egitean, maitatzean... Euskarak birika bete-beteak behar dituelako, eta hori egunero erabiliz bakarrik lortu daiteke. Euskaraldian eta egunero, euskaraz eta kitto!



## Ijito herriaren historiara gerturatzeko hitzaldia

Kera emakume ijitoen elkartearen eskutik, ijito herriaren historia ikuspegi feministatik ezagutzeko aukera bikaina izango dugu astelehenean (hilak 28), 18:00etan Andretxean hasiko den hitzaldian (gazteleraz izango da). *Resistencia Romani* izenburuko saioa Andretxeaberdintasun Zerbitzutik antolatatu dute, apirilaren 8an Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna izan dela eta, horren aitzakiarekin. Azaldu dutenez, “hitzaldiari esker herri honen bizi-dinamikak, balioak eta ohiturak hobeto ulertu ahal izango ditugu. Gainera gaur egungo eta lehenagoko emakume ijito erreferenteei ahotsa eta ikusgarritasuna emango zaie. Eta, jakina, gaur egun oraindik nagusi den genero-ijitofobiaren edo -antigitanismoaren, eta horrek komunikabideetan duen eraginaren inguruan hausnartuko dugu”. Sarrera librea da, nahi duten guztientzat.

## ‘Otello’ operaren emanaldia eskainiko dute gaur Coliseon

Giuseppe Verdiren *Otello* opera famatua ikusi ahal da gaur arratsaldean Coliseo antzokian. Vienan (Austria) grabatutako lanaren proiektzioa 19:30ean hasiko da, eta sarrerak 5,5 euro balioko du. Bi ordu eta erdiko iraupena izango du, gutxi gorabehera (148 minutu). Giza-arimaren nondik norakoak esploratzen ditu Verdiren lanak, Otello jeneralari suntzitzen dioten zeloek protagonista direla.



## Maiatzaren 7an hasiko dira danborradetarako entseguak

Maiatzaren 7an hasiko dira Sanjuanetako danborradetan joko diren abestiak ikasteko entseguak, eta parte hartu nahi dutenek maiatzaren 14rako eman beharko dute izena, Udalaren webgunearen bitartez. Haurren kasuan eskolan bertan egin ahal da izen-ematea. Saiok eguaztetan izango dira, betiko tokian (Beistegi eraikinean, Bittor Sarasketa kalean), eta ordubeteko iraupena izango dute. Haurrak 19.00etan hasiko dira, eta helduak 20:00etan.



## Hezkuntzaren Aldeko Asteari buruzko interesgunea

Udal Liburutegia Egoizierekin elkarlanean ari da, apirilaren 28tik maiatzaren 5era bitartean martxan egongo den Hezkuntzaren Aldeko Mundu Ekintza Astea. Kanpaina ‘Hezkuntza defendatu, Larrialdia itzali’ lelopean ari da garatzen: “Goiburuak arreata jarri nahi du hezkuntzak gatazka armatuetan, larrialdi klimatikoetan, behartutako migrazioetan eta osasunkrisietan duen garrantzian. Garapen Iraunkorrek Helburuen ildotik, liburutegia sentsibilizaziorako eta hausnarketarako espazioa izango da herritarrentzat. Horretarako, gaiarekin loturiko liburu- eta film sorta bat aukeratuko dugu, gure interes-zentroan eta irakurketa-gida batean eskuragarri egongo direnak”.





## Argazkilaritza dokumentalari buruzko tailer praktikoa emango du Susana Gironek

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek antolatzen duten Argazkilaritza Maiatzean ekimeneko egitaraua datorren astean aurkeztuko dute, baina horren baitan eskainiko den argazkilaritza tailerrerako izen-ematea zabalik dagoela jakinarazi dute, interesaz izanez gero apuntatzen joateko. Aurtengo tailerlean argazkilaritza-dokumentala landuko da, Susana Gironekin. Maiatzaren 10ean izango da, Portaleko areto nagusian, eta egun osoko iraupena izango du (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara). *Unlimited youth* izenburuari jarraituta, argazkilaritza-dokumentala lantzerako orduan sortu ohi diren zalantzak argitzen ahaleginduko da Giron: Nola egiten dio aurre argazkilari profesional batek bere eguneroko lanari? Zein da bere sortze-prozesua eta nola gauzatzen da? Zeintzuk dira ideia on bat argazki-istorio on bilakatzeko gakoak? Antolatzailerek diotenez, “argazkigintza dokumentalaren inguruko tailer praktikoa izango da batez ere, eta erreportajeak edo argazki-proiektu dokumentalak sortzeko prozesuak eskatzen dituen urrats guztiak izango ditu ardatz: ideia sortzen denetik ideia hori aldizkari eta argitalpenetan atera arte”. Prezioa 20 eurokoa da eta izen-ematea [argazkilaritza@depo-reibar.com](mailto:argazkilaritza@depo-reibar.com) helbidera mezua bidalita egin behar da. Plaza kopurua mugatua da.

### Argazkilaritza Maiatzean 2025

Tailerrarekin batera egingo diren erakusketak eta bestelako jarduerak martitzenean aurkeztuko dituzte, 19:00etan Eibarko Klub Deportiboan, baina, aurreratu digutenez, azken edizioetan egindakoari jarraituko diote aurrean ere: hilabete osoan zehar goi mailako argazkilarien lanak ikusi ahalko dira eta, tailerrez gain, hitzaldia, topaketak kalean eta rallya egingo dira.



## Itxura pertsonala hobetzeko saioa egingo da bigarren

Bigarren aldiz bisitatuko gaitu Aitziber Badiola irudi-aholkulariak eta, aurrekoan egin zuen bezala, itxura pertsonalaren inguruko aholkuak eta tresnak eskainiko dizkigu. Maiatzaren 21ean, eguaztena, izango da, 18:30etik aurrera... eta kitto! Euskara Elkartearen. “Tailer honen helburua da hausnarketa pertsonala egitea, ia nork bere itxura nola hobetu dezakeen aldateta txikien bitartez eta mozturrotuta sentitu gabe”, dio ondarrutarrak. Izen-ematea gaur zabaldu da eta horretarako hainbat aukera daude: argazkian duzuen QR-an sartuta inprimakia betez, telefonoz (943200918) edo emailuz ([elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)). 7 euro balio du, 5 euro elkartekeo bazkideentzat.

## Sanjuanetarako kartel eta pegatina lehiaketak deitu dituzte

Eibarko Udalaren Kultura eta Gizartekintza batzordeek alkohol gehiegikeriaren kontrako umorezko pegatina sortzeko lehiaketa antolatu dute. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 12ra artekoa da. Pegatinetan landu beharreko



gaia honako hau izango da: alkohol gehiegi ez edatea; alkohola neurrian edatea komeni dela gogoratzea herriko gai guztietan. Lehiaketari buruzko informazio zehatza, beste argibide batzuekin batera, Udalaren webgunean kontsultatu daiteke. Eta, horrekin batera, Sanjuanak Eibarren kartel lehiaketa ere deitu dute. Lanak aurkezteko epea, modua eta informazioa eskuratzeko bideak berberak dira.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

7		4		1	2	
2	6		7			3
			5		7	8
				8	9	
8			7			5
	1	4				
4	2		6			
9		2		3		4
	6	1		4		9

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	8		4		7	
	5				4	6
		7	8		9	3
		1	5			
	2			9		5
				8	6	
1	8			2	3	
9	3					6
	6		7			1

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara -adibidean bezalata Paskual Iturriagaren alegi baten zatia aurkituko duzu.

Arroka	1	A	2	3	4	A
Jipoiu	E	5	6	R	7	U
Belarri-luze txikia	U	N	T	8	9	A
Harrera	A	10	11	12	13	A
Zauri gaiztotuari dario	Z	14	R	15	E	16
Familiako	A	17	18	I	D	E
Urria eta berendiaren laguna	S	A	19	20	21	22
Toreroaren etsaia	23	E	Z	24	25	A
Basa-behi	B	E	26	I	27	28
Zahagi txikia	Z	29	30	A	T	31

- Eskoba hegalaria ren jabe
- Zikoitza, esku-eutsia
- Toki batetik bestera aldatu
- Ehun urtekoa
- Mahats-zuku irakin gabea
- Salmentako partaide
- Hondakin
- Aintzira txikia
- Adar-gai
- Diru-etxea

S	O	32	G	33	N	
Z	E	34	K	35	N	A
M	U	37	38	39	U	
M	40	41	42	E	A	
M	43	Z	44	I	O	
B	45	Z	E	R	46	
H	O	47	D	48	R	
U	R	49	A	50	L	
A	51	A	R	K	52	
B	A	N	53	54	55	

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29					
30	31	32	33	E	K	35	E	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54	55								

# Apirilak 25 - Maiatzak 8

## BARIXAKUA 25

### OPERA

**19:30** Giuseppe Verدين "Otello". Vienan (Austria) grabatutakoaren proiektzioa. 5,5 euro. Coliseo antzokia.

## ZAPATUA 26

### ZAPATUKO IPUINA

**12:00** "Ipuinekin Jolasean" ipuin-kontaketa saioa, Lur Korta Redin-en eskutik. 3 urtetik gorako umeentzat. Doan (aurretik izena emanda). Portalea.

### THERMOPYLAE

**16:00** Modalitate ezberdinetako borroka-jaialdia. Astelena frontoia.

### BISITA GIDATUA

**17:00** Doako bisita gidatua, erakusketa iraunkorrera (euskaraz).

**18:30** Bisita gidatua, gazteleraz. Aurretik izena emanda (museoa@eibar.eus / 943 708446). Eibarko Armagintzaren Museoa.

### ARMAGIÑAK EGUNA

**22:00** Kontzertuak: B.O.T.H., Lee Kore eta Bulkada. 5 euro. Eibarko Gaztetxia.

## DOMEKA 27

### TXIRRINDULARITZA

**10:15** Eibarko Txirrindulari Elkartearen VIII. Saria. Untzaga plazaatik irten eta Urkizu Pasealekuan amaituko da, 12:00etan.

### INTERPRETAZIO ZENTROA

**11:30/13:30** Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa bisitatzeko orduak. Arrate.

## ASTELEHENA 28

### HITZALDIA

**18:00** "Resistencia Romani", Kera emakume ijitoen elkartearen eskutik. Gazteleraz. Saio irekia, herritar guztientzat. Doan. Andretxea (Isasi, 11).

## EGUAZTENA 30

### DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**17:30** Dantza-erakustaldia, Eibarko akademiaren eta dantza-eskolen eskutik: Ballet Eibarres, Kaxa, Nele Dantza, Kezka dantza taldea, Academia Eva, Untzaga Jubilatuen Etxea, Koa, Pagatxa eta Beheko Tokia. Untzaga, Ego Gain, Otaola, 5 eta Urkizu. **20:30** Erromeria, Gauargi taldearen eskutik. Untzaga.

### EUSKAL JAIA

**19:00/21:00** Larrain dantza errepasoa. Arrateko Andra Mari ikastetxea.

## EGUENA 1

### MAIATZAREN LEHENA

**10:20** LAB sindikatuak Donostian egingo duen mobilizaierako autobusa. Ego-Gaineko geltokia.

## BARIXAKUA 2

### IBILIXAN

**10:00** Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuaren irteera. Anbulatorioko parkea (Toribio Etxebarria).

## ZAPATUA 3

### SANTA KURUTZ JAIK

**10:30** Kanpaiak. **11:00** Meza, Gorostan eta Mandiolan hildakoen alde. Santa Kurutzeko ermitan. Ondoren, hamaiketakoa, Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitalariek.

**12:15** Erraldoiak, buruhandiak, eta haurrentzako jolasak.

**13:00** Herri-kirolak, Kar mele Gisasola, Uxue Ansorregi, Julen Kañameres eta Ibai Soroaren eskutik.

**14:30** Bazkaria, Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria, Oier Balzolak eta Unai Andonegik alaitua.

**19:30** Esku-pilota lehiaketa (barruska). Txapelkunak saria izango du. Arrateko frontoia.

## DOMEKA 4

### SANTA KURUTZ JAIK

**09:45** Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik. Saria zozketatuko da parte-hartzaile guztien artean. Izen-ematea 09:30ean, Urkizuko iturrian. **10:30** Kanpaiak.

**11:00** Meza Nagusia, Santa Kurutzeko ermitan. Hamaiketakoa, hurbiltzen diren guztientzat, trikitalariek eta Usartza txistulari taldekoek girotua.

**12:00** Dantza emanaldia, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik. **12:15** Haurrentzako jolasak.

**12:45** Pontx pailazoaren ikuskizuna.

**13:45** Txapel-jaurtiketa, nahi duten guztientzat.

**14:30** Asteburuko jaien amaiera, kanpai hotsez. Santa Kurutz.

## EGUAZTENA 7

### DANBORRADA

**19:00** Sanjueketan egingo den danborradarako lehen entsegua, haurrentzat.

**20:00** Helduen lehen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

## EGUENA 8

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuek etxea.

## ERAKUSKETAK

### Apirilaren 27ra arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTE**aren erakusketa kolektiboa. (Portalea).  
- **"IRUDIMENA ASKATU"** Eibar **BHI**-ko ikasleen artelanak. (Portalea).

### Apirilaren 29ra arte:

- **"BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK"** erakusketa. (Andretxea).

### Apirilaren 30era arte:

- **"BURDINA HISTORIAN ZEHAR"**, 1. argazki-lehiaketaren erakusketa. (Armagintzaren Museoa).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **26an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00, 20:00
- **28an:** 19:30

**“Confidencial (Black Bag)”**  
 DRAMA



2025/AEB/93'  
 Zuzendaria: Steven Soderbergh  
 Aktoreak: Michael Fassbender,  
 Cate Blanchett, Gustaf Skarsgard  
**Thriller/Intriga/Espioitza**

## 2 ARETOA

- **26an:** 22:30
- **28an:** 19:30

**“Una ballena”**  
 THRILLER



2024/Espainia/108'  
 Zuzendaria: Pablo Hernando  
 Aktoreak: Ingrid Garcia Jonsson,  
 Ramon Barea, Asier Tartas  
**Fantastikoa/Neo-noir**

## ANTZOKIA

- **26an:** 17:00 (2), 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00 (2 Aretoa), 20:00
- **28an:** 19:30

**“Faisaien irla”**  
 DRAMA



2025/Euskal Herria/98'  
 Zuzendaria: Asier Urbieta  
 Aktoreak: Jone Laspiur,  
 Sambou Diaby, Itziar Ituño  
**Thriller/Inmigrazioa**

## ANTZOKIA

- **26an:** 17:00, 19:45 (2 Aretoa)
- **27an:** 17:00, 20:00 (2 Aretoa)

**“Minecraft film bat”**  
 ANIMAZIOA



2025/AEB/101'  
 Zuzendaria: Jared Hess  
**Fantastikoa/Abenturak/  
 Bideojokoa**

<p><b>FUNEUSKADI</b>                  Single Auzoko</p>	<p><b>FUNERARIA MUGICA</b>                  Funerariak</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO CREATORIO                  ELGOIBAR</p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b>  <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Eibar:                  Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa:                  Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar:                  Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea                  (Daxako hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa:                  Marqués de Valdespina, 15</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao                  Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

**Bixente Arrizabalaga  
 Alberdi “Txertudi”**

**2. URTEURRENA**  
 2023/04/24

Nahiz eta gure  
 artean ez egon,  
**BETI GURE GOGOAN.**

- ZURE FAMILIA -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **DANEL!!!**  
Gaur 4 urtetxo betetzen dozuz eta!!! Patxo bat famelixaren eta, batez be, Nahia eta Julenen partez.



Zorionak, **AITZ!**  
Atzo 4 urte bete zenduazten!  
Segi horrela, txapeldun! Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **IRATI,**  
eguztzenian 6 urtetxo bete zenduazelako. Musu erraldoi bat famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak, **NIKO,**  
hillaren 19xan urtetxua bete zenduan eta. Patxo haundi bat famelixaren partez. Maitte zaittugu!



Zorionak, **URKO.**  
Bixar 11 urte, txapeldun! Musu haundi bat famelixa guztien partez.



Zorionak, **OSKAR,**  
aurreko domekan urtiak bete zenduazten-eta. Musu haundi bat famelixaren eta lagunaren partez.



**Monica Rueda Romo**

2025/04/12

**“Gure bihotzetan  
BETIRAKO  
biziko zara”**

ZURE FAMELIXA  
ETA LAGUNAK



**Miren Koikile Albizu Etxabe**

2025/04/20

Zumaian sortu zinenetik, beti besteen zerbitzura, ixil-ixilik, apal-apal, alde egin duzu zerura. Pazko Igandean, Aberri Egunean ... leihoan ez dago ikurrin hura. Joandako maiteekin segi zure abentura.

**EGUN HAUNDIRA ARTE**



# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Zumaian 3 logelako alojamendu turistikoa asteka alokagai, uda zein beste edozein urtarotan (garajea ere badu). Etxea 2019an guztiz berriztuta. Zumaia erdian dago (Juan Belmonte kalea), baina taberna giroetatik kanpo. 678222229.
- Logelak alokatzen ditut Eibarren. 651479142.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Garaje partzela alokagai Urkizuko dorreetan. 609453946.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 697837557.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri soziosanitarioa). Interna, baita orduka ere. 643766267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 624828670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Goizez edo gaez. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka eta asteburuetan. 642223295.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka eta asteburuetan. 653573290.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642084800.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa) -baita ospitalean ere- eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Orduka. 667060292.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632426318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. Baita asteburuetan ere. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da zapatuetan lan egiteko. Goizez edo egun osoan. 645735442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Baita gaez ospitalean ere. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632015835.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Erreferentziak. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631375117.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.

### 4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da Buenos Aires eta Kalaka tabernetarako. Bidali CV: buenoseibar@gmail.com
- Langilea behar da Armagintzaren Museoa ordezkapenak eta bisita gidatuak egiteko. Bidali CV: ondartzet@gmail.com

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Euskarazko irakaslea behar da B2 titulua ateratzeko klase partikularrak jasotzeko. 677689227.

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK


### 6.1. Salgai

- "Obras completas de Jose Miguel de Barandiaran" lana salgai. 15 tomo dira. 688619739.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- I-watch erlojua (Iphon-ena) aurkitu dugu mendian. Jabeak 649031990 zenbakira deitu dezake.

**APIRILAK 30**  
**DANTZAREN**  
Nazioarteko  
eguna  
**2025**



**EIBAR**

Dantza Eskola  
Escuela de Danza



[ipuru@eibarkiroa.eus](mailto:ipuru@eibarkiroa.eus)  
[n.laeledantza@gmail.com](mailto:n.laeledantza@gmail.com)  
945 20 32 49



ArmeriaEskola<sup>x</sup>



Zatoz ate irekietara!

**MAIATZAK 6**

**AUKERARIK ONENA,  
ETORKIZUNA DUENA**